Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

201 zenbakia
2019 **apirila**

BERBETAN: JAIME URRUTIA DEUSTUKO SALESTARREN IKASTETXEAN ABUSUAK EGIN ZIZKIOTEN

ERREPORTAJEA: GAZTE ALAI AISIALDI TALDEA **BARKUA:** GORA KORRIKA!

TOKIKOM

195-196-197-198-199-200-

Gure babesleak

Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

201 zenbakia
2019ko apirila

aurkibidea

Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia - Nerea Etxaniz Osa — **Iritzia** 4

Tatiana Rios — **Gurera etorriak** 5

erreportajea 6
Gazte Alai Aisialdi Taldeak 50 urte bete ditu

Jendetza eta momentu berezi artean ari da Gazte Alai Aisialdi Taldea bere berrogeita hamargarren urteurrena ospatzen. 21. Korrikako edizioan lekukoa eramateko aukera ere izan zuten hau Deustutik igaro zenean.

Deustuko Ikastola — **Eskolak** 10

Irlandarren taberna — **Behin batean** 12

Andrazkoen aurreskua — **Artikulua** 14

berbetan 16
JAIME URRUTIArekin

Umetan Deustuko Salestarren ikastetxean abusuak jasan zituen pertsonetako bat da Jaime. Salaketa aurkeztu duten 31 lagunen bozeramailea.

Octavio Taberna (1969) — **Irudiak berbetan** 21

barkua bete herba 24

LITERATURA 1362km euri, ezkutuan geratutako emakumeen aldarria

FOLKLOREA Ondalanen bi erraldoi berriak

PINTXODROMOA Deustuko Batzokia

KULTUR TXOTX Gorka Zozaia eta Maite Sarasola

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Uxue Gutierrez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Mikel Aiartzaguena, Nerea Etxaniz, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Maialen Gago, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea
Argazkiak: Iñigo Azkona Bikandi
Publizitatea: Jone Gartzia Gerra
Diseinua: BO5T

Nerea Etxaniz Osa
Petriletik

Ai, ama!

Akabo. Amaitu dira koplak. Honako manifestua sinatu dugunok gure Putopia partikularra aldarrikatu nahi dugu: bizi bapo eta egin planto gizarte zapaltzaile honi. Utikan bizkarroi eta aprobetxategiak. Gorroto dugu nagusikeria eta agintekeria oro; urrun nahi ditugu berekoi, pribilegiatu eta ziniko guztiak.

Askok mende erdia betea dugu eta aspertu gara maitale, ama edota alaba txintxoak eta lankide-auzokide finak izateaz; lagun batek dioen bezala nezkatu gara, alegia, neska izateaz bai nekatu eta bai nazkatu. Atsoak gara eta harro gaude!

Aski dugu apalategiari begiratu azkar bat ematea teoria askatzaile honen oinarriak topatzeko: Egunero hasten delako hark eskemak apurtu zizkigunetik, orain 50 urte, askotan galdetu digute Zergatik panpox? Hala ere, Amaren eskuak hor izan ditugu beti. Gero, %100 basque izan eta arraro izatetik harro sentitzera pasa gara; laineza hartu barik, ordea, adeitasunaren alde egin baitugu beti, eta gure Kristalezko begia bihurtu zaigu horren lekuko zorrotzena. Hortaz, batzuetan Erraiak aidean bizi arren, eta Bihotz Handiegia izanagatik, basa ere bagara. Zuek segi aukera-maukera merkatu librean; gure aldetik, atertu arte Itxaron behar badugu ere, Janis Joplinena egingo dugu askotan, libre-libre. Eder eta nagi bizi nahi dugu eta lortuko dugu.

Hori bai, gorde dezagun, badaezbada, manifestu honen Babeserako Kopia.

Gora alferkeria!

Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia
Gazte mugimenduko kidea

Begirada

Pasaden hileko “Irudien” inguruko gogoetak, pentsamendua buru barnean ixiltzeko baino, are zarata gehiago egiteko bakarrik balio izan zidan. Eta irudien inguruan buruari bueltaka, ezinbestean hasi nintzen begiraden inguruan pentsatzen.

Begiradek eurek badituzte hamaika esanahi. Begiradetaz hitz egin dezakegu lehen pertsonan. Begiratu zaitzaket begietara, samur edo probokatzaile. Begiratu zaitzaket goitik, harroputz edo eroritakoari eskua luzatzeko asmoz. Begiratu zaitzaket behetik, koldar edo altura berdinean jarriz begiak. Hitz egin dezakegu baita bigarren pertsonan, lehenengo pertsonatik begiratzen ganbiltzala ere. Ez nazazu begiratu horrela, lotsati edo mespretxuz. Nola begiratzen duzun jendea, admirazio edo kezkaz. Eta noski hitz egin dezakegu hirugarren pertsonan ere. Davidek Goliat begietara begiratu zuen esango dute gure kondairek. Alemaniar gehienek beste alde batera begiratu zuten nazien garaian esango du beste batek. Begirada galdua du Anek, ezeresara dabil ordu erdian begira, aipatuko du lagunak.

Pertsona haina begirada dago, begirada haina interpretazio, interpretazio haina juizio. Juizio hauek guztiek gainera, borondate bat egozten diote begira dabilen pertsonari.

Begiradek beraz badute borondate bat eta esango nuke borondate horren araberako irudiak sortzen ditugula begiratzen dugunok. Ez da berdina izango David eta Goliaten historiak euskaldun batengan sortuko duen irudia edo Espainiar batengan sortuko duena. Hau horrela onartuta bada ordua gure borondate guztiak begirada bakar baten ipintzeko, aurrera begira, borondatez. Izan Korrikan, Apirilaren 28an edo Deustuko Gazte Lokalaren defentsan. Begiratu dezagun denok, inoiz inon, inoren irudi izan nahi baldin badugu behintzat/bederen.

Tatiana Rios

Jatorria: Medellin, Kolonbia
Bizitokia: Deustu
Lanbidea: Tabernaria

“Jatorriz kolonbiarra izan arren, Euskal Herriko ohitura eta jendearekin identifikatuago sentitzen naiz.”

Testua eta argazkia
Prest!

Noiz etorri zinen Euskal Herrira?
6 urte nituela Euskal Herrira bizitzera etorri nintzen. Gure ama urte batzuk lehenago etorri eta denbora baten ostean, nire neba eta ni berarekin bizitzera ekartzea erabaki zuen. Ondarrun eman dut nire bizitzaren zati handi bat eta gaur egun Deustun bizi arren, lagunak eta familia bertan ditut.

Euskaraz hitz egiten dakizu. Zaila egin zitzaizun hizkuntza ikastea?
Kolonbia utzi eta Ondarrura heldu ginenean, nire inguru guztia euskalduna zen, eskola, lagunak... kalean ere erderazko hitz gutxi entzuten nituen egia esan. Bertako eskolan ikasi ahal izateko baldintza bakarra euskara ikastea zen. Gazteleraz ikasi nahi izatekotan Ermuara ikastera joan beharko nintzela azaldu zioten irakasleek nire amari. Euskara ikasten hasi nintzen horrela.

Ondarrutara, batua beharrean.
Euskal Herrian bizi naizenetik Ondarruko euskara izan da batez ere entzun dudana. Eskolan ondarrutarrez hitz egin didate beti, eta nire lagunek ere euskalki bera erabiltzen dute. Euskara batua zailagoa da niretzako, askotan ulertzea kosta egiten zait.

Ama eta nebarekin euskaraz egiten duzu?
Ez. Ni naiz familian euskaraz hitz egiten dakien bakarra. Nire nebak 15 urte zituen hona etorri ginenean, eta ez zitzaion garrantzitsua iruditu hizkuntza berri bat ikastea. Nik berriz herrian bizi eta ikasteko beharrezkoa nuen, eta gaur egun pozten naiz aukera hori suertatu izanaz.

Jendea harritu egiten da ondarrutarrez hitz egiten dakizula esaten diozunean?
Aurreritziak direla eta, jende askok ez du espero euskaraz hitz egiten jakitea, are gutxiago ondarrutarrez.

Pozik zaude Euskal Herrian?
Gustora bizi gara hemen. 8 urte Ondarrun eman ondoren, Kolonbiara bueltatzea erabaki nuen. Bertan nengoela hemengo ohiturak eta kultura faltan botatzen nituen. Jatorriz kolonbiarra izan arren, Euskal Herriko ohitura eta jendearekin identifikatuago sentitzen naiz.

Ezberdintasuna dago Medellin eta Euskal Herriaren artean beraz.
Hemengo jendea lasaiago bizi dela nabaritzen dut, ekonomia egonkortasuna nabariagoa da hemen, baliteke horregatik izatea.

Bisitan joan ohi zara zure herrira?
Bai, duela lau urte gutxi gora behera Medellinera bidaiatu nuen. Noizbehinka bisitan joaten saiatzen gara, urtero edota bi urterik behin.

Bueltatzeko asmorik daukazu?
Lagunak eta familia hemen ditut. Argi dago ingurura ere ohitu egin naizela. Beraz, ez dut uste Kolonbiara bizitzera joango nintzatekenik, lehen esan bezala, oso gustora nago hemen.

MENDE ERDIA... ETA AURRERA. ZORIONAK GAZTE ALAI!

Testua Nerea Cubillo Urkizu - **Argazkiak** Gazte Alai Aisialdi Taldea

Jendetza eta momentu berezi artean ari da Gazte Alai Aisialdi Taldea bere berrogeita hamargarren urteurrena ospatzen. Igaro berri diren Deustuko jaietan, pregoilari izendatu zituen Deustuko Jai Batzordeak. Horrez gain, 21. Korrikako edizioan lekukoa eramateko aukera ere izan zuten hau Deustutik igaro zenean.

Mende erdia igaro da gazte talde batek San Felizisimo elizako barrenetan ume eta gaztetxoentzako aisialdi talde bat sortzea erabaki zuenetik. Hau ospatzeko, joan den apirilaren 6an Deustuko Ikastolan jaialdia antolatu zuen Gazte Alaik.

Sorreratik gaur egun arte aldaketa nabari asko jasan ditu aisialdi taldeak, nahiz eta Manu begiralearen hitzetan “kanpora begira oso nabariak ez izan”. Duela berrogeita hamar urte adibidez, taldea sortu zutenek argi zeukaten eliza eta taldearen arteko harre-

man estua, taldearen oinarri garrantzitsuenetariko bat izango zela. Horrela, urte askoren buruan aisialdi taldea eskaut izaeran oinarrituta egon da. Hori dela eta, umeekin lantzen zituzten eduki gehienak elizaren pentsamenduarekin bat zetozen.

BILAKAERA

Gaur egun, egituraketa antzekoa izan arren, elizaren harremanarekiko egiten duten irakurketa aldatu egin da guztiz. Umeak hezteko erabiltzen dituzten pentsamendu eta ohiturak ere aldatu dituzte erabat.

Horretarako, urteetan zehar hainbat prozesu eraldatzaile eraman dituzte aurrera, taldekideei egokiak iruditzen zaizkien balioetan oinarritu eta taldea eraikitzen jarraitzeko. Beraz, eskaut talde bat izateari utzi zioten aspaldi. Kristautasunetik urrundu eta hausnarketaren, eztabaidaren eta kontsentsuaren bitartez, hasiera bateko balio zuzen zein egokienekin geratu dira soilik: errespetua, elkarbizitza, parekidetasuna, hausnarketaren garrantzia, kritikaren balioa, naturarekiko zaintza, auzoarekiko konpromisoa...

Izaeraz aldatu arren, hasierako argazki bildumei erreparatuz konturatu dira ekintza, azpiegitura eta antolatzeko era antzekoak erabiltzen jarraitzen dutela. San Felizisimoko elizan sortutako taldea dela ahaztu gabe, eraldaketa eta eraikitze prozesua urtez urte daramate aurrera, gizartearen aldaketekin ere, bat eginez. Dena den, argi daukate begirale den edonork eztabaidan jar dezakela umeak hezteko erabiltzen dituzten balio zein jokabideak. “Denon artean erabakitzen eta moldatzen dugu daukagun hezkuntza aisialdi proiektua” dio Manuk.

GAUR EGUN

Gazte kopuru handi batek osatzen du, boluntarioki lan egiten duen begirale taldea, horrez gain, gero eta ume eta gaztetxo gehiago daudela nabari da. Guztira, 60-80 lagunek osatzen dute gaur egungo Gazte Alai. Momentu zailenetan aldaketa larririk gabe aurrera ateratzeak, honetan lanean jarraitzeko beharra gogorarazi dio askori. Taldearekiko konpromezua hezurretaraino sartu izana, nori eta aurreko belaunaldietako begiraleei zor dieten kontua da. Gizarte honetan dauden gabeziak identifikatu eta aisialdi talde bezala, gabezi horiei irtenbidea

bilatzea da helburu nagusietako bat, espazioa, denbora eta ekintza eredu ezberdinak proposatuz. Gizartearen aurka posizionatu ezik, honek bizi dituen desoreka eta kontraesanak ulertu eta horien inguruko iritzi kritiko eta zintzo bat eraikitzen saiatzen dira, aurretik aipatutako balioak indarrean jarriz.

APIRILAK 6KO EGUNA

Mende erdi luze hau ospatzeko, joan den apirilaren 6an urteurren jaialdia antolatu zuten Deustuko Ikastolan. Jaialdi horren helburua, Gazte Alain ibilitako belaunaldi ezberdinak elkartzea izan zen. Guztira 300 pertsona inguru elkartu ziren bertan eta egitarau ezberdina eraman zuten aurrera. Eguerdiko 12etan hasi eta arratsaldeko zortzirak arte, asko izan ziren batak besteari kontatutako eta gogora ekarritako pasadizo zein bitxikeriak. Manuren arabera, argazki bilduma zaharrei erreparatzen zieten bitartean, aspaldiko esperientziak eta kontakizunak entzun ziren egun osoan zehar.

www.renault.es / 902 333 500

RENAULT BILBO BERRI

IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA

RENAULT QUALITY MADE
RENAULT WORLD V CHAMPION ENGINE

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT gomendatzen du elf

RENAULT

EUSKAL KULTURA GOZATUZ ETA GORATUZ

Apirila aurten Deustuko Ikastolan laburra bezain trinkoa izan da.
Ekimen desberdin ugari batera gertatu izan dira hilaren hasieratik.

Alde batetik, orain dela urte batzuetatik hona antolatzen den Liburuaren Egunaren inguruko erakusketa prestatu da, gaia Ikastolaren 55. urteurrena izan delarik.

Badira 55 ikasturte euren seme alabak euskaraz ikastea eta ikasketak euskaraz jarraitzea nahi zuten gurasoek bultzatuta, Deustuko Ikastola sortu zela. Bidaia luzea, oparoa eta eraginkorra izan da, eta gogoratzea merezi duela pentsatu dugu.

Testua eta argazkiak:
Deustuko Ikastola

HHkoek horma-irudi galantaz apaindu dute euren ohiko txokoa.
LHko 1. eta 2. mailakoen lana hain zabala izanda, tokiz aldatu behar izan da, azken urteetan maila horietatik igarotako ikasle guzti-guztien argazkiak ikusgai jarri baitira.
LHko 3. eta 4. mailakoek Ikastolako album dotoreak sortu dituzte Ikastolako eremu eta une desberdinetako argazkiez eta idazlanez osatuta.

LHko 5. eta 6. mailakoek, Ikastola sortu zeneko garaiari buruz hausnartu nahi izan dute eta euren aitite-amumengana jo dute garai hartako informazioaren bila.

Bederatzi bat heldu elkartuta, ikasleek aurretik prestatutako galdera sortari gogotsu erantzun diote grabatuta geratu den aurkezpen hunkigarri batean. Grabaketa hori erakusketa epean ikusgai egon da, garai hartako eta aurkezpenari buruzko horma-irudi batzuez lagunduta. Beste alde batetik, Gurasoek bideratutako Aste Kulturalaz gozatu dugu, Ikastolaren 55. urteurrenarekin bat eginda.

Hasiera-hasieratik gurasoen inplikazioa oso handia izan da Deustuko Ikastolan eta gaur egun, antolaketa eta parte hartzea ondo egituratuta, jarrera berdina adieraz-

ten dute. Horrela, ekintza ugari prestatu dituzte HH2 urtekoetatik hasita DBH 4. mailara helduta: ipuinkontalariak, euskal dantzak, zirku tailerra, pilota tailerra, kooperazio jolasak, aurpegia margotzeko tailerra, euskal musika tresnak, kultur anitzak gelan eta jantokian, pasta tailerrak, Ibaizabal taldekoen "Emakumeon kirola" hitzaldia, Trakamatraka musikatresnen tailerra eta kontzertua,…

Hori guztiori gutxi balitz, KLIKA 21. KORRIKA ere heldu da apirilean Deustura. Ohikoa den bezala, auzoan egiten dugun Korrika Txikian parte hartu dugu eta KORRIKA handian, batzuk animatzen eta beste askok korrika eginez, euripean izanda ere, ezin izan dugu huts egin. Ikastolako kilometroko lekukoa 4 lagunen artean eraman zuten. Alde batetik, Aimar Sarrionaindia-Ibarra eta Unai Sagastui DBH3ko eta DBH4ko ikasleak, eta bestetik, Gabriel Nieves eta Marije Urrutia irakasleak. Berezia izan da haientzat, hurrengo Korrikan ez baitira gure Ikastolan egongo.

Euskera eta Euskal kultura bultzatuz gain, Deustuko Ikastolak auzoko aisialdiko taldeekin zer ikusi handia izan du eta badauka gaur egun ere. Hala nola, Gazte Alai aisialdi taldearekin, zeinek aurten 50. urteurrena ospatzeko ekitaldia, apirilaren 6an, Deustuko Ikastolan bertan egin du. Berrogeita hamar urte ondoren, helburu berbera jarraituz baina erronka berriei aurre egiten dihardu auzoan. Ikastolan euskaraz hazi eta hezi diren ikasle asko eta asko elkartean ibilitakoak dira eta gaur egun ere badabiltza buru belarri. Urte hauetan egindako esfortzua, lana eta konpromisoa goraipatu eta eskertu nahi izan diegu Ikastolan bertsolari dabilen Iñaki Iturriozen eskerronez prestatutako bertsoa eskeiniz:

Zaila da hitzetan bizi izandako guzti-guztia adieraztea baina erraza, ordea, sentitzen duguna laburbiltzea: eskerrik asko guztioi zuon aldetik jarri duzuen gogoa, esfortzua eta kemenagatik. ZORIONAK ETA SEGI HONELA!

Prest!
IRAGAR ZAITEZ!
bilbokoaldizkariak@gmail.com
94 447 10 42

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

IRLANDARRAREN TABERNA

John Fordek izen bateko pelikula zuzendu baino askotaz lehenago, irlandarraren taberna izan zen Olabeagan. Filmeko John Waynek auskan egiten bazuen, Deustuko tabernariak, Isabel Betigrol irlandarrak alegia, borrokan egin behar izan zuen... baina auzitegian.

Testua
Hektor Ortega

Sarritan aipatu dugu atal honetan gaur egun Deustuko Erribera esaten diogun auzoari Olabeaga esan izan zaiola. Eta hura zela Bilboko portua, gutxienez ontzi handietarako, uren sakonera txikiagatik Areatzako kaietaraino heltzerik ez zeukaten ontzien ainguraleku alegia. 1697. urte hasieran Olabeagaraino igo zen Saint Nicholas ingeles gerraontzia. Laster eraman zituzten lehorrera eskifaiako kide batzuk, gaixorik: lau marinel, arotz burua eta azken horren morroia. Isabel Betigrolen txiribogan hartu zuten ostatu. Beste baten eman genuen atal honetan (PREST! 137. zenbakia) Lege Zaharreko Deustuan irlandarren presentziaren berri.

XVIII. mendeko taberna giroa, ingeles grabatu batean.

Hiru bat aste eman zituzten itsasgizonek tabernan, haietako batzuk ohean egun osoz, ontzira itzuli orduko. Kontua da behin barkuan ez zutela ordaindu egindako gastua eta orduan tabernariak salaketa paratu zuen ontziko kapitain Arthur Holdsworthen aurka. Isabelek zehatz eman zituen kontuak, bananbana: "Pedro el francés" (20 ezkutu "por veinte y dos días que estuvo en mi casa enfermo y encamado, como también procede de camisas, medias y otras cosas que le hube dado y prestado"), Thomas Wolf, Guillermo Sumerc, Andres Franklin Orotara, 104 ezkutu eta 5 errealetako gastua egin zioten. Ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula.

Kapitainak, ostera, ukatu egin zuen egonaldi haiek berarekin zer ikusia zeukatenik. Han egon baziren, argudiatu zuen, itsasgizonek eurek ordaindu zezatela. Are gehiago. Esan zuen behin baino gehiagotan azaldu zela tabernan marinelen bila eta Isabelek oztopoak baino ez zituela jarri gizonak ostatutik irten eta ontzira itzul zitezen. Areago: deklarazioa ematen zuen bitartean, ontzia Portugaleten zegoen, nabigatzeko prest, baina salaketaren ondorioz ez zioten itsasoratzen utzi. Isabel Betigrolek galera handiak eragin zizkion, hamar mila ezkututik gorakoak.

Auzia

Desadostasunak ikusita, auzia zabaldu zen Bilboko Kontsulatuaren aurrean eta alderdi bakoitzari lekukoak aurkezteko aukera eman zioten. Tabernariak Deustuko lau gizon deitu zituen. Portuko lanetan aritzen ziren, zamaketetan, gabarrarekin garraioan edo ontziak istinkatzen. Lazaro Fano zen haien artean nagusia, hala jabegoz nola itzal sozialean. Txiribogaren gaineko etxebizitzan bizi zen, baina etxe eta baserriak zeuzkan, baita gabarra ere.

Lekukoek deklaratu zutenez, kapitainak Isabelekin adostu zuen 104 ezkutuko gastua ordainduko ziola, Lazaro Fano aurrean zela. Astegarrenean, Lazaro Fanok berak eraman zituen tabernako gizonak ibaian behera Portugaleteraino, Saint Nicholas ontziraino alegia. Orduan agindutako dirua eskatu zion kapitainari baina honek esan zion Bilbora igo behar zuela eta orduan emango ziola Isabeli. Ez zuen berba bete.

Kontsulatuaren auzitegiak ebazpena eman zuen, azkenean, Saint Nicholas ontzia itsasoratu eta gero: Holdsworth kapitainak agindutakoa ordaindu behar zion irlandar tabernariari. Isabel Betigrolek bere 104 ezkutuak lortu zituen, kapitainaren bermatzaile atera zen Bilboko Nicolas Utchines ingeles merkatariaren eskutik.

Auziko agiriak ikusita, irlandar emakume tabernari haren kasuak argi apur bat ematen digu garai hartako jendarteaz. Bere txiriboga, edateko eta jateko lekua ez ezik, lo egiteko eta gaixotasunetatik osatzeko tokia ere bazen itsasoko jenderentzat. Portuko joan-etorrien ondorioz, emakume hura ohituta zegoen nazio eta kultura diferenteetako gizonekin akordioak egiten: deustuarrak, kapitain ingelesa, Pedro frantsesa... Eta bezeroei diru apur bat aurreratzeko moduan zegoen.

Langileriaren hazia

Kontu honek badauka nabarmendu beharreko beste alderdi bat. Arthur Holdsworth kapitainak bere eskifaiako gizonen gaineko xehetasun labur baina iradokitzaileak eman zituen. Bere lehenengo deklarazioan esan zuenez, tabernan ostatu hartu zuten marineletatik bakarra, Pedro frantsesa, itzuli zen bere borondatez ontzira. Hortaz, eskifaiako kideak ez ei zeuden oso gustura Saint Nicholas hartan. Baina Pedro hura ere, "después de haberse hallado en dicho navío se escapó en compañía de los dichos Guillermo Sumrdc y Andres Franklin y que no save ni puede decir donde se hallan". Ihes egin zuten eta ez ei zituzten topatu.

Peter Linebaugh eta Marcus Rediker historialarien aburuz, sasoi hartan, XVII. mendearen amaieran eta XVIII. mendeko lehenengo erdialdean, itsas-kapitalismoa egonkortu zen Atlantikoko ertz bien artean. Globalizazio sasoi hartan, industrializazioa abiatu aurretik, makinarik ezaugarriena ozeanoak alderik alde zeharkatzeko ontzia zen eta bertan, fabrikaren eta espetxearen baldintzak eta zigorrak nahasten zituzten. Barku haiek lehenengo lantegi gisa ikus daitezke, gizon multzo handiak batera aritzen zirelako pertsonen eta merkantzien zirkulaziorako lanean, beti ere diziplina hierarkiko latzaren azpian. Itsasgizon haiek itsasoko proletalgoa ziren, Rediker eta Linebaughen iritziz, Bristoldik Habanaraino eta Bostondik Amsterdameraino zabaltzen zen zama-ontzien eta gerraontzien sare erraldoian gatibu. Ertz horietako batean, apal baina ez ikusezin, Ibaizabaleko bokalea zegoen. Arraza, jatorri eta hizkuntza desberdinetako gizon haietako askok ez zuten uztarri gogor hura onartzen eta ontziak erresistentziarako eremua ere bilakatu zituzten. Deustuan aterpetu ziren haiek bezala, marinel batzuek ihes egiten zuten. Errebelde haien erantzunetako bat itsas-lapurretara joatea izan zen. Han, bestelako gizartea osatu zuten, Redikerrek eta Linebaughek Hidrarkia deitu dutena, ordena sozial autonomo, demokratiko eta berdinzalea.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

BI HAMARKADA DEUSTUKO PLAZAREN JABE

Martxoaren 19an Deustuko emakumeek hogeigarrenez dantzatu zuten haien aurreskua. Egun berezia izan zen dantzari guztientzako, are bereziago ohorezko aurreskulari eta atzeskulariarentzako. Gainera, egunean bertan berreskuratutako tradizio berezi honen berri jasotzen duen liburua argitaratu zuten.

Testua Jone Gartzia
Argazkiak Bihotz Alai

Data seinalatua izaten da Deustun San Jose egunaren aurreko igandea. Andrazkoen aurreskuarekin hasi eta eskupilota txapelketarekin borobildu izan ohi da eguna. Aurtengo San Jose eguna jaieguna izanik, martxoaren 19an bertan ospatu ahal izan dute Deustuarrek haien egun berezia. Ospatzeko hamaika arrazoi izan dira gainera, andrazkoen aurreskuaren XX. urteurrena, esaterako.

Revista pintoresca de las provincias Bascongadas aldizkariko 1846ko ale batean izan zuen Iñaki Irigoienek andrazkoen aurreskuaren berri, ordurako galdua zen ohitura. Bihotz Alai dantza eta folklore taldeari proposatu zion tradizioa berreskuratzea, eta bi urteko lanaren ondoren, 1999an hartu zuten Deustuko emakumeek berriz ere herriko plaza.

Goitik behera birsortu behar izan zuten dantza, izan ere, Revista pintoresca-ko aipua baino ez zuten erreferentzia gisa. Bertan irakurri daiteke Deustuko jaietako egun nagusian, San Jose egunean, Bilboko alkatea hurbiltzen zela oraindik anexionatu gabe zegoen Deustu herrira, agintari nagusiaren plantak egitera. Deustuarrek ez zutenez hori batere atsegin, San Jose osteko lehen domekara aldatu zuten euren jai nagusia. Egun horretan eguerdiko ekitaldi garrantzitsua andreek dantzatutako zortzikoa eta herriko dantzari onenaren aurreskua izan ei zen. Aipu horri tiraka berreskuratu eta birsortu zuten dantza. Geroztik dantza herrikoia izan da, edonork parte hartzekoa. Entsegu irekiak antolatzen dituzte emakumeek dantza ikasi eta plaza erdian egin dezaten. Horri esker urtero jende berria animatzen dela kontatu digu Bihotz Alai taldeko Jabi Ortegak. Ahalegin handiagoa eskatzen du, baina emaitzak ere handiagoak dira: “bizirik dagoen dantza da”, diosku Ortegak.

Sokadantzan erantzukizun handia daukate lehen dantzariak (aurreskularia) eta azkenengoak (atzeskulariak), taldea koordinatzeaz arduratzen baitira. Omenaldi bezala, aurtengo aurreskulari eta atzeskulariak lehen edizioko berdinak izan dira (nahiz eta aurreskulariak, Maialen Martijak, lesio batengatik ezin izan zuen 1999koan dantzatu) .

Beste leku batzuetan ez bezala, Deustun bikoteak ateratzea oso erraza dela azaldu digu Maialen Martijak, “jendea parte hartzeko gogoz etortzen delako”, dio. Aurreskua ikustera doazenak dantzaren parte direla azaldu digu, ez ikusle pasiboak, ohi bezala.

Horrek berak egiten du berezi eta herrikoi Deustuko sokadantza, herritarren parte hartzeak, eta horrela lortzen da behin galdu izandako eta orain hogei urte berreskuratutako tradizioa urtez urte mantentzea.

IKASTARO teknologikoak
DOAN!
UBUNTU
Ubuntu Linux Sistema Eragilearen ezaugarri nagusienak lantzeko aukera
EMAN IZENA:
www.azkuefundazioa.eus/ikastaroa
MAIATZAK 22
Euskararen Etxean

berbetan

JAIME URRUTIArekin

Umetan Deustuko Salestarren ikastetxean abusuak egin zizkioten

“Abusuen larritasuna eta dimentsioa

Umetan Deustuko Salestarren ikastetxean abusuak jasan zituen pertsonetako bat da Jaime. Salaketa aurkeztu duten 31 lagunen bozeramailea.

Testua Lur Mallea **Argazkiak:** Iñigo Azkona



izan da harridura sortu duena”

Abusuengatik Deustuko Salestarren ikastetxeko irakasleen aurka aurkeztutako salaketa guztiak, 30 inguru, preskribatuta daude. Etsituta zaudete?

Aurkeztu aurretik etsituta geunden. Jakin bagenekien kasu gehienak preskribatuta zeudela eta aurkez zitezkeen beste salaketa asko ere preskribatuta zeudela, baina aurrera egin eta salaketak aurkeztea erabaki genuen ikastetxean gertatutakoa publiko egiteko, egia hori ezagutzera emateko. Argi izan dugu, lehen unetik, justizia eta erreparazioa lortzea zaila izango genuela preskripzioaren legeagatik, baina egia exijitzeko modua genuela. Ondorengo urteetako preskribatu gabeko kasuen biktimak salaketa aurkeztera animatu nahi izan ditugu, Jose Migel San Martin edota ikastetxean zeuden beste abusatzaile batzuk zigor gabe ez geratzeko.

Adin txikikoei egindako abusuen preskripziorako tartea luzatu egin dute berriki. Kasu gehiago salatzeko balioko du neurriak?

Horrelako delituen preskripziorako tartea luzatzea baikorra da, baina ez da nahikoa. Umeak dira gizarteko talde ahulena eta hain zuzen horregatik izan behar du talde babestuena. Umeen aurkako horrelako delituek gizateriaren aurkako krimen izan beharko lukete eta inoiz ez lukete preskribatu behar, larritasun handiko ekintzak izanik. Zentzuzko eskaera da, eta ez da gorroto edota mendeku gosearen ondorioa.

Salaketa aurkeztu eta hiru hilabetera, Deustuko Salestarrengandik egia lortu duzue?

Ez. Orain arte Salestarrek bi komunikatu argitaratu dituzte, bietan gezurra esateko eta erantzukizunetik libratzeko. Guk ez dugu egiarik eskatu, gure egia mahai gainean jarri dugu Deustuk, Bilbok eta oro har gizarteak jakin dezan zelako munstrokeriak gertatzen ziren metro eskas batzutara. Hedabideei asko eskertzen diegu emandako laguntza.

Duela gutxi Salestarrak biktimekin harremanetan jarri dira, zertarako?

Hiru eskaintza egin dizkigute. Batetik, laguntza psikologikoa, bestetik, laguntza juridikoa eta, hirugarrenik, bitartekaritza, elkarrizketa erreparatzailea izateko, horrela deitu diote eurek. Laguntza psikologikoari eta juridikoari uko egin diogu, zentzugabea deritzogu gure biktimek arlo horretan laguntzea, adarjotze makraboa. Interesgarria iruditu zaigu, aldiz, bitartekaritzarako eskaintza, baina ez eurek proposatutako zentzuan. Gure borondatea da erantzukizunak garbitzea bai erasotzaile bai babesleen artean. Jose Migel San Martin ez da kongregazioko kidea 90eko hamarkadatik, baina badira bospasei pertsona egun ordaindik salestarren kongre-

“Umeak dira gizarteko talde ahulena eta hain zuzen horregatik izan behar du talde babestuena”

▷▷ SAKONEAN

“Oasi batean geundela zirudien”

Horrelako oihartzuna izatea espero zenuten?

Ez. Orain arte Bilbon horrelako kasu entzutetsurik ez da izan, oasi batean geundela zirudien eta bat-batean Deustuko Salestarren ikastetxe entzutesuan gauza izugarriak gertatu direla jakin da, ez modu isolatuan, modu sistematikoan baizik, luzaroan; eta hori eskandalagarria da. Deustu bezalako herri batean denok ezagutzen dugu elkar, ia denok ezagutzen du biktimaren bat. Oso gogorra da.

Pertsonalki zelako esperientzia izan da?

Guzti honek bi aurpegi ditu. Alde batetik oso askatzailea da. Zenbaitek orain gutxira arte ez diete senideei edota bikoteei ezer kontatu, barruan izan dute gordeta, eta emandako urratsari esker lortu dute. Bestetik, oso gogorra ere bada, guzti hau publiko egitea, komisaldegira joatea eta gertatua freskatzea eta memorian astintzea oso konplexua da, baina hobe da ateratzea eta nolabait kudeatzea eta partekatzea bakarrik ez sentitzeko, orain gutxira arte bakarka bizi izan baitute askok, erruduntasun sentipenarekin. Bakarrik ez zaudela ohartzean, babestuta sentitzen zara, eta hedabideen babesak gizartearen babesa ere ekarri digu. Done Petrin egin zen elkarretaratzeak, esate baterako, babesa sentiarazi zigun; indar handia eman zigun.
ematen ausartzen ez dena, hierarkia eklesiastikoa atzean duelako, nik uste.

gazioko kide direnak eta gertatuaren berri zutenak; babesleak dira. Jakin nahi dugu kongregazioak zer egingo duen pertsona horien aurka, gertaera larrien errudun baitira. Ikusteko dago ikastetxeak noraino iritsi nahi duen. Guk gure helburua azalduko diogu, eta ea akordioa adosten dugun.

Itxaropentsu zaudete?

Ikastetxearen jarrera ikusita ez. Ez dugu ezer espero Elizarengandik eta are gutxiago Salestarrengandik. Orain arte biktimak babestu ordez, bere izen ona babestu du, horixe izan da bere ardura nagusia.

Zergatik sortu du zuen salaketak hain harridura handia? Deustuarrek ez zuten abusuen susmorik?

Jakina zen, vox populi zen Deustun irakasle batzuk ikutuak egiten zituztela bai gure ikastetxean bai La Sallen ere. Ospea zuten, eta ezizena ere neurrikoa. Abusuen larritasuna izan da auzoan harridura sortu duena, hain abusu gogorrak izatea eta hainbeste izatea, horrexek sortu du jendartean sorpresa eta hunkidura. Gu geu ere harritu gaitu. Beste inon ez dira

hainbeste salaketa aurkeztu, Estatuan ikastetxe berean abusu kasu gehien salatu diren zentroa da Salesianos.

Zenbat abusu izan dira?

Zenbaketa egin dugu, kalkulua, kurtsoko sei, zortzi izan ziren ume abusatuak, urteren batean hamar ere bai. Zifra hori bider hamabost eginez gero, San Martinek lanean emandako urteak, guztira ehun bat izan ginela esatea labur geratzea dela uste dugu.

Adin txikikoei egindako abusuen gaia tabua izan da, estalia. Zeintzuk dira zailtasunak?

Abusu asko ez dira unean bertan identifikatzen, urte asko beranduago baizik. Abadeak, gainera, ahalguztidunak izan dira, eurei aurre egitea zaila izan da beti. Elizaren tamainako erakunde bat aurrez aurre izatea, nork eta ume batek, oso pertsona ahulak. Guk duela 30 urte gertatua salatzen dugu, pentsa zer ez zen gertatutako 50eko eta 60ko hamarkadetan Elizak zuen zigorgabetasunarekin eta barra librearekin.

Erasotzaileei babesleei beste garrantzia eman diozue, zergatik?

Biktima garenontzat larritasun bera du abusatzailearen ekintzak zein babeslearenak, izatez, larriagoa iruditzen zaigu babesleen jarrera. Zorigaiztokoak izan garela diogu, munstro batekin topo egin dugulako, psikopata batekin, arima gabeko batekin. Baina hori baino larriagoa da, pertsona talde bati buruz ari baikara, denak helduak, modu sistematiko eta antolatu batean urteetan gertatua ezkutatu duena. Eta gertatua ez zen gertatuko babesle gabe, babesleak beharrezko kolaboratzaileak izan dira. Horregatik erantzukizunak eskatzean, guretzat ez da nahikoa delitu egileak auziperatzearekin, horien zigorgabetasuna bermatu duten babesleak ere auziperatu behar dira.

Ikastetxe katolikoek oraintsu protokola onartu dute abusuen kasuan modu eraginkor batean erantzuteko.

Aurrerapausoa al da?

Zigorgabetasun guneak murrizteko edozein pauso txalotzen dugu. Abusu kasuren bat agertzen denean, ikastetxeak eurek jartzea erasotzailea justiziaren aurrean aurrerapausoa da, baina urrats hori bere kontestuan ulertu behar da. Ikastetxeek ez dute duela bi hilabete jakin abusuen berri, aspalditik dakite gertatua hainbeste salaketa izan direlako. Are okerrago, erasotzaileak babestu dituzte. Zerbait egin dutenean, erasotzaileak lekuz aldatzea izan da, Bartzelonatik Soriara. Horrek adierazten du gaurdaino Eliza gehiago arduratu dela egindako mina arindu ordez, bere izena garbitzeaz. Hedabideen bitartez, abusuak plazaratzearen ondorioz, hasi da jendea pentsatzen Elizaren izena ez dela uste bezain garbia. Arriskuaz ohartu direnean hasi dira neurriak hartzen.

Beldurtuta dago Eliza ezagutu diren abusuen kasuengatik eta etor daitekeenagatik?

Beldurrak mugiarazi ditu. Bertako hedabideak abusuen berri ematean, kakaz gainezka zeudela konturatu dira, eta horrek mugiarazi ditu Salestarrak, eta duela hiru hilabete gertatuaz ari gara.

Beste biktima batzuentzat erreferente izan zaretela uste duzue?

Horixe lortu dugu, salaketa bakar batek beste asko ekarri ditu, guztira, 31 izateraino. Biktimak animatzea eta indartzea lortu dugu. Ziur gaude beste hainbat lekutan ere eragingo zuela, Indautxuko Jesuitetan edota Madrileko Salestarren beste ikastetxe batean. Guzti honek ondoriok ditu, biktimak ahalduntzen ditu egoerari beste era batera erantzuteko.

Eredugarri izateko aukera galdu dute Salestarrek?

Eragindako kaltea eta izan duten erantzukizuna aitortzeko aukera galdu dute. Gehiegi zipriztindu gabe, ekaitza pasata, aurrera egitea dute xede. Guretzat ikastetxearen jarrera tamalgarria, etsigarria eta mingarria izan da.

"Zorigaiztokoak izan garela diogu, munstro batekin topo egin dugulako, psikopata batekin"

POLITIKA

Zauritu eta atxilotuak faxismoaren aurkako elkarretaratzean

Apirilaren 13an, Bilboko Euskalduna Jauregian Vox eskuin muturreko alderdiak egindako mitinean, faxismoaren aurka protestatzen zebilen jendearen eta ertzaintzaren artean hainbat istilu larri jazo ziren. Gehienak Euskalduna kanpoalde zein inguruetan. Gutxienez lau pertsona atxilotu zituzten. Horrez gain, San Inazio auzoko 19 urteko gazte bati, ertzaintzak Foam jaurtigailu batekin masailezurra hautsi zion, honen arabera modu baketsuan manifestatzen zebilen bitartean.

FOLKLOREA

Bi erraldoi berri

Ondalan Erraldoien Konpartsak bi erraldoi berri aurkeztu ditu: trikitilaria eta panderojolea. Erraldoi txikiak dira, 'txikienak' edo 'miniak' deritzenak, 6 urtetik gorakoentzat. Ondalan da Bizkaia osoan adin honetarako erraldoiak dituen Konpartsa bakarra, eta umeen eskariz beste bi kaleratzea erabaki zuen. Guztira 6 dira erraldoi 'txikienak', aurretik zeuzkaten txistulari, dantzari, gaitero eta danborreroari gehitu baitzaizkio azken biak; eta orotara tamaina eta pisu guztietako 18 erraldoi bildu ditu Ondalanek urte guzti hauetan. Azken boladan auzoz auzo ari dira konpartsakideak haurrentzako tailerrak eta erakusketak egiten. Gazteei erraldoiak frogatzeko aukera eman eta euren artean zaletasuna piztea da asmoa, eta badirudi bere fruituak ematen ari dela, azken bi erraldoi txikiak lekuko.

AUTOGESTIOA

'Bi urtez auzoa berpizten'

San Inazio-Ibarrekolandako Errondoko Auzo Etxeak bi urte bete ditu. Hainbat izan dira espazioa auzotarrengana gerturatzeko egindako ahaleginak: auzoko elkarteen artean antolatutako jardunaldi herrikoiak, joan den azaroan abiatutako auzo mailako asanbladak, hitzaldiak, mahainguruak, herri bazkariak, jaialdiak... Bi urte hauetan hainbat talde sortu dira bertatik, Bilobak talde feminista edo Txepetx asialdi taldea, esaterako. Bigarren urtemuga jai giroan ospatu nahi izan dute, auzotar guztiekin. Apirileko azken asteburuan bazkari herrikoia eta kontzertuak antolatu dituzte, bai Errondokon eta bai Deustuko Gazte Lokalean ere.

Deustuko Gazte Lokalak hainbat eraso salatu ditu

Joan den apirilaren 9an, Gazte Lokalaren proiektuan parte hartzen eta hau kudeatzen duten talde zein norbanakoek agerraldia egin zuten azken asteetan Deustuko Gazte Lokalaren aurka eman diren erasoen harira. Bertakoek salatu dutenez, birritan giltzekin sartu egin dira Gazte Lokalera, otsailaren 28an aurrenez, eta matxoaren 14an bigarrenez, bi jaialdiren ostean kutxako dirua lapurtuz. Txoridendako sarraila zein leiho bateko kisketeak apurtzeaz gain aurreko apirilaren 6ko gauean gaztetxea erretzeko saiakeraz gain, eraso hauen aurrean argi utzi dute ez dutela horrelakorik onartuko eta gogora ekarri dute EAJren Gazte Lokala hustutzeko erasoaren aurka agertu ziren bezala, honen aurka ere agertuko direla, espazioa defendatzen eta gaztetxea Deustura zabaltzen.



Urtea: 1969

Txema Luzuriaga

Octavio taberna

1969. urtean Done Petri plazan sagardotegia eta Octavio Taberna aurkitzen ziren. Octavio taberna delakoa, Elexalde Etxea izenaz ere ezaguna zen eta Done Petri plazan eraikia izan zen duela 200 bat urte gutxi gorabehera. XIX. mende amaieran, Arostegi harategia zegoen, gerra hasi baino lehenago taberna bihurtuko zena. 1986. urtean eta hainbat mobilizazioren ostean eraitsi eta desagertu egin zen. Argazki honekin Ana Maria Pipaon gogorarazi nahiko genuke, taberna honetako emakume langile erreferentea eta joan den martxoan zendu zena.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!



Korrika pasatu eta gero, zerk egin dizu klika?

Nerea Olaziregi

Libe Irisarri
Erribera

Egia esateko beste urte batzuetan baino askoz ere gutxiago hunkitu naiz aurten korrikarekin. Erriberan ez da aldez aurretik girorik egon, informazio falta somatu dut eta euria egiteak ez du lagundu. Baina han egon nintzen pasatu zenean.

Errapel Basaguren
Erribera

Basurton egon nintzen Korrika animatzen. Poztasunean igarri dut klika, Korrikak animo handia ematen dit eta pozten nau.

Iratxe Goitia
Deustua

Aurtegoa nire alabaren lehenengo Korrika izan da eta klikatu nau berarekin parte hartzeak. Hunkigarria da horrelako ekimen herrikoi batean berarekin partea hartzea. Oso berezia.

Joseba Telletxea
Erribera

Ez dut ikusten klik aldaketarik. Euskararen kontua ez dago korrikaren baitan, beste kontu bat da.

Rosa Gil
Erribera

Abestiak klikatu nau. Asko gustatu zait moldeak apurtzen dituelako eta gazteentzat oso erakargarria izan dela uste dudalako. Euskaldun mota asko dago Euskal Herrian eta guztiak dira berdinak.

Alfon Teruel
Deustua

Ez dut korrikan parte hartu tabernan lanean nengoelako. Telebistan ikusi dut korrika zuzenean hainbat egunetan eta ez dakit klikatu dudan baina hipnotizatuta geratu naiz pantailari begira.

>> LITERATURA

1.362 KM EURI, EZKUTUAN GERATUTAKO EMAKUMEEN ALDARRIA

Lau eskutara idatzi dute Goizalde Landabasok eta Garazi Goiak 1.362 km euri liburua. Gutun-trukea osatu dute galdera bat ardatz hartuta: bigarren bizitza bat izango bazenu, bizitzeko beste bat, zein emakume izatea aukeratuko zenuke?

Testua Ane Zabala - **Argazkiak** Kultur share

Aspaldi irratian ezagutu zuten elkar Garazik eta Goizaldek. Garazi Goia Londresera bizitzera joan arren harremana izaten jarraitu dute. Elkarrekin zerbait idaztea pentsatu eta gutun trukaketa bat egitea pentsatu zuten, "faltan genuen denbora aurkitzea posiblea zen, patxadaz irakurri eta elkar idazteko", nabarmendu du Goizaldek. Urtebete iraun duen esperimentu honek idazketari beste zentzu bat eman diola aitortu digu. Gutunak 2017ko uztailean Lekeition abiatu eta 2018ko uztailean amaitzen dira Londresen. "Bigarren bizitza bat bizitzeko aukera izango bazenu, zein emakume izatea aukeratuko zenuke?" abiapuntu horretatik hasi ziren idazleak lanean. Irakurleoi ere galdera berdina egiten digute gogoetarako abiapuntu bezala. Emakume ahaztuak, emakume desagerraraziak, erreferentziazkoak izan beharko luketen emakumeak, baina itzalean gelditu zirenak: argazkilariak, pintoreak, idazleak, kazetariak, abenturazaleak, musikariak... Goizalde Landabasok eta Garazi Goiak gogoratu nahi dituzte, aldarrikatu, historiak ukatu dien lekua eman, nola eta gutunotako lerro eta euri tanten artean. Bien kezka izan da, emakume horiek zein erreferentzia gutxi izan duten. Kezka horretatik abiatuta eta gutun trukaketan oinarrituta, emakume asko deskubritu dituzte. Hainbat emakume ezagun eta ezezagun berreskuratu dira liburu honetako lerroen artean. Garazi Goiak gutunetan aipatutako emakume asko Goizalderentzat ezezagunak ziren eta alderantziz ere gertatu zaio Garaziri. Liburuan agertzen diren emakume asko gizon ezagunen bikote edo emazte izandakoak dira, "gizon handiaren atzean emakume handi eta garrantzitsuak egon dira eta historiak ahaztu egin ditu. Gizonen itzalpean geratu diren emakumeen istorioak ekarri dituzte gutunetara, betiko galduta gera ez daietzen.

Emakume ezezagunez gain, euria da liburuaren beste gaietako bat. Izan ere, sormen prozesuan idatzi duten lekuetan beti ere tantak egon dira. Beraz Bilbotik Londresera dagoen distantziaz gain, izenburuan ere euria agertzen zaigu sinbolikoki eta literalki.

1362 km euri taula gainean

Aurtengo Loraldia jaialdian "1362 km euri" liburua taulara eraman dute. Horretarako, gutunak postal bihurtu dituzte, ezsenara tzean Goizaldek Garaziren gutunak irakurriko ditu, eta alderantziz. Nerea Alberdi biolin-joleak maisuki jo eta aukeratutako pasarteak entzuten dira, emakumeen doinuak. Galder Perezen zuzendaritzapean gutun trukaketa eta emakume ezagunen istorioak eta historia dira, bertatik bertara entzun, ikusi, sentitu eta ia ukitu ahal izan ditugu, gutun-azal barreneko orri goxoak bezala.

Mondragon Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

“ENPRESAREN LAN METODOETARA EGOKITZEKO AUKERA EMAN DIT EREDU DUALAK”.

Gorka García Ruiz (21 urte, Santurtzi) Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritza Mekatronikako 3.maila ikasten ari da.

Zergatik aukeratu zenuen Mekatronikako gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Ingeniaritza Mekatronikoan sartu baino lehen, Automatizazioa eta Robotika Industrialeko goi-mailako zikloa egin nuen. Han, robotikaren eta elektronikaren inguruko ezagutzak lortu arren, hauek handitzeko gogoak nituen. Ingeniaritza honek bilatzen nituen atal guztiak batzen zituenez, graduan izena eman nuen. Mekatronikako gradua Mondragon Unibertsitatean proiektu berri bezala agertu zen, inguruko unibertsitateetan ez baita ingeniaritza gradu hau ematen. Beraz, ikasketak egin ahal izateko aukera bakarra zen. Gainera, tokiaren eta erabiltzen diren metodoen inguruan entzundako iritziek, aukera egokia zela baieztatu baino ez zuten egin.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arte bizitako esperientzia niretzat ona izan dela esango nuke, hainbat atal eta gai desberdin lantzeak gauzen inguruko iritzi ezberdinak garatzeko lagungarria izan delako. Gainera, goi-mailako ziklo batetik unibertsitate ikasketak egiteko saltoa egiterakoan sortu daitezkeen zalantzak argi tzeko ere balio izan dit.

Horrekin ez dut esan nahi aldaketa hori egiteko bidea erraza denik eta oraindik asko geratzen da helmugara heldu arte. Baina momentuz, orain arte bizitakoa modu egokian balioesten dut.

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Mondragon Unibertsitatean erabiltzen den metodologiaren atal handi bat proiektu eta talde lanetan oinarritzen da. Horrela, seihilekoetan zehar ikasitako eta landutako kontzeptuak praktikara eramanez, modu sakon batean bereganatzen ditugu. Ikasteko metodologia egokitzat jotzen dut, teoriaren eta praktikaren arteko harremana zuzenzuzenean ikusten delako.

Zer hobetu daiteke?

Unibertsitatean nagoenetik, dena ondo dagoela esango nuke; eraikinak ondo prestatuta daude, tailerrak, liburutegia, jantokiak, aparkalekua, eta abar. Gehien gustatzen zaidana eraikinen artean dauden lorategiak dira, atsedenaldiak egiteko eta klaseak hasi arteko momentuetan egoteko ondo daude eta tokiari itxura hobea ematen diote.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, Dual ereduan. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?

Ikasten dudan bitartean, Zamudioko parke teknologikoan kokatuta dagoen ITP Aero enpresan ari naiz lanean. Hegazkinen turbinek dituzten diskoen mekanizaziorako programazio lanetan aritzen naiz, makinen kontrolerako CNC programazioa garatuz.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Eredu dualean egoteak unibertsitatetik kanpo dagoena ikusteko baliagarria da, enpresaren barruan erabiltzen diren lan metodoak eta lortzen diren ezagutzak ezin dira guztiz garatu soilik teorian ikusita, nahiz eta lotuta egon gauza desberdinak baitira. Horrela, lortzen den esperientziaren bitartez unibertsitatean landutako kontzeptuak osatu eta hobetu egiten dira.

Nire kasuan, adibidez, ingeniaritza ikasketetan gainetik ikusi nuen CNC programazioa, soilik oinarrizko kontzeptuak landu genituen. Baina orain, gai honen inguruan gehiago ikasi behar izan dut, horrela aurretik bereganatutako oinarrizko kontzeptuak osatu eta modu sakon batean lantzeko.

Beraz, programazio eta beste kontzeptu desberdinen inguruko ezagutzak handitzeko eta enpresaren lan metodoetara egokitzeko aukera eman dit eredu dualak.

“OREKA EZ GALTZEKO OINARRI SENDOA” GORA KORRIKA!

2562 kilometrotan zehar Euskal Herri osoko kale zein errepideak bete ditu 21. Korrikak euskaraz. Apirilaren 4an Garesen hasi eta 10 egun geroago Gasteizen amaitutako Korrika, Deustu eta San Inazio auzoetatik ere, ohikoa den bezala, ibilbidea egin du.

Testua Nerea Cubillo Urkizu - **Argazkiak** Prest!

Euria barra barra ez zen oztopo bilakatu inorentzako, Deustualdeko kaleak ezik, Bilboko etorbide eta errepideak ere jendez lepo egon ziren Korrika pasatu orduko. Elastikoa eta korrika egiteko oinetakoak jantzi eta Euskal Herrian euskararen alde egiten den dinamika garrantzitsuenetarikoan parte hartzeko prest agertu ziren ehundaka pertsona.

Zehazki apirilaren 11ko arratsaldean jaso zuen Deustualdeak korrikaren lekukoa. Bilboko sarreran denboraz atzeratu arren, arratsaldeko laurak aldera hartu zuen Bilboko portuaren agintaritzak Euskalduna Zubiko malda. Zubi irteeran Deustuko Ikastola zegoen, lekukoa noiz heltzeko

zain. Deustuko parkeko errepidea guztiz moztuta, jendetza bildu zen espaloiaren bi aldeetara. Bi urterik behin datorrenean, berezia da korrika bakoitzaren herritik igarotzen denean, berdina pentsatu zuten Ikastolako irakasle zein ikasle guztiek, lau katu baino ez ei ziren geratu zentroko pasillo eta ikasgeletan. Ikastola atzean utzi eta Deustuko Unibertsitatearen txanda heldu zen Deustuko parke amaieran, honek Heliodoro de la Torre kalea hartu eta estu estu gora egin zuen Agirre Lehendakariaren etorbide hasieraraino, bertan zain baitzegoen Deustuko Jai Batzordea.

Ohitura da Deustuko Jai Batzordean kilometroa erosi eta urtearen arabera hau osatzen duen eragileren bati lekukoa eramateko aukera ematea. Aurten Gazte Alai, mende erdia betetzeagatik,

Pare Deustuko Gazte Talde Feminista, eta Prest! Deustualdeko aldizkaria, orotara 200 zenbaki argitaratzeagatik, izan gara Done Petritik hasita 21. Korrikako lekuko eramale.

Ondoren Loraldiaren txanda heldu zen, Bidarte auzo etxera ailegatu, eta Ibarrekolanda plazaraino, hainbat izan ziren lekukoa eskuz esku eta kilometroz kilometro txandakatutako elkarteak: Hizkuntza Eskola, Azkue Fundazioa eta Botikazar Institutua besteak beste.

Arratsaldeko bostak aldera egin zuen Korrikak San Inazio amaieratik ihes, lekukoa Deustuko Korrika Batzordeak zeramala. Eguraldiak atertu egin zuen Erandioko sarreran.

Deustuko Korrika Batzordea

Korrika heldu baino aste batzuk lehenago, egitarau oparoa antolatu du Deustuko Korrika Batzordeak Matxintxu AEK-ren laguntzarekin. Otsailaren hasieran sortutako batzorde honen helburu nagusia, Korrika beraren aurkezpena egin eta honen harira hainbat ekintza ezberdin antolatzea izan da. Peto salmenta Done Petri plazan, bertso poteoa, kale apainketa...

MARTXOAREN
29tik
APIRILAREN
28ra
www.pabellon6.org

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

ALEGRIADUN GILDAK

Heliodoro de la Torre kaleko 5. Zenbakian dagoen Deustuko Batzokira jo dugu oraingoan ere. Egunero jateko goxoz beteta dagoen barraren beste aldetik, Felipe eta Gorkak tabernako eskaintzaren berri eman digute.

Zailtasun maila: txikia

Egiteko denbora: segundo batzuk

Prezioa: 1,00€

Berezitasuna: alegriak ahoan ematen duen berotasuna

Kontu batzuk

41 urte igaro dira dagoeneko Deustuko Batzokiak ateak zabaldu zituenetik. Felipe, Fredy eta Gorka lan eta lan ari dira egunero pintxo eta gilda goxoak prestatzen eta eguneko menuak, asteburutko menu bereziak eta enkargupekoak eskaintzen.

Deustuko Batzokiko Gorka

DEUSTUKO BATZOKIA

Heliodoro de ka Torre 5 – Deustu
944050658
Astegunetan 7.00-22.30
Asteburutan 10.00- itxi arte

Zein da gakoa?
Osagaiak kalitatezkoak badira gilda goxoa erraz prestatzen da. Deustuko Batzokian Celorrio eta Vela etxeetako produktuak erabiltzen dituzte, Errioxako alegria eta Nafarroako oliba-olio birjina estra. Gildaren prestaketak ez du misteriorik. Otzean osagaiak sartu eta kito. Batzokikoak gilda biziak dira, minak, bezeroen oso gustukoak.

OSAGAIAK

Piparra
Errioxako alegria
Antxoa
Oliba
Oliba-olioa
Ogia

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

GORKA ZOZAIA GARCIA

Erriberako zientzia irakaslea

ORDU BAT GUTXIAGO IRLETAN

Zenbatetan entzun ote dugu esalditxoa, espainiar hedabideen ordu puntuetako emanaldietan, kanariar artxipielagoari dagokienez. Ordu bete gutxiago, bide batez, gutxiago direlako afrikarrak. Baina eta ordu bete gutxiago, nahiz eta benetan guk izan ordu bete gehiago! Are, eguzkiak agintzen duena baino bi ordu aurrerago goaz gu martxo amaieratik (GTM+2), bere garaian Alemania naziaren ordu bera hartu zenetik mantentzen dugun desfasea, neguan ordubete apaltzen dena. Egia esan, munduko gehientxuenek bezala, eguzkia bere puntu gorenean eguerdiko 12ak pasata ikusten dugu. Atera kontuak, eguzkiarekin bat GTM ordua dela guri dagokiguna, zeinak abenduan egunsentia 7:30tan eta ilunabarra 16:30tan ezarriko lituzkeen, ekainean 4:30 eta 19:50tan utziz.

Horrela ikusita, nahiko ordutegi zoroa dirudi, baina azken finean, ordulariak ordua besterik ez du ematen, eta kontua da denbora zertan ematen dugun. Eztabaida ohikoa izan ohi da eguzkiarekin batera esnatu ala arratsaldean eguzkitan aisia izatea nahiago dugun, nahiz eta ameslariagoak izanik, dikotomia hori gainditu eta neguan, argi gutxiago denean, lan gutxiago egitea ere planteatzerik baden. Honaino helduta, kultur gomendio bat ematekotan, ahal dela egunsentiarekin itzartzearena litzateke. Gorputzeko hamaika funtzio erregulatzen dituzten erritmo zirkadianoak, eguzki argiarekin sinkronizatzen baitira, batez ere.

Nik neuk ezin dut halakorik egin ordua aldatu eta lanera sartzeko unea aurreratu zenetik. Amorru hori ateratzeko protesta gisa, edota ordularia nire menpe jartzearren, edota zer arraio, isleño bezala aldarrikatzeko, nire esku zegoena egin dut, ordularirik aldatu ez eta ordu bat gutxiagorekin bizitzea irlan.

MAITE SARASOLA ISAZELAIA

Elorri bertso-eskolako kidea

Doinua: Kantatzen ez duenak zorionik ez du

Apirilaren 4an
Aspaldiko zita
Aurtengo ibilbidea
Garesen hasita
Nahiz ta egina duten
Zenbait herrik klika
Nola ez Deustuk ere
Jaso du bisita
Pausoz pauso jadanik
Martxan da korrika!

Elurra, eguzkia
Txingorra, itzala
Badakigu korrika
Geldiezina dala
Peto morea jantzi
Behar den bezala
Korrikaren marea
Aurrera joan ahala
Kilometroren baten
Elkartu gaitzala!:

IKUSI ETA IKASI

•FAMILIAN EUSKARAZ GOZATU•

15 URTE BETE DITUT!
Zatoz nire urtebetetze festara!
EPA TXIKI ikuskizuna eta sorpresa gehiago!
Maiatzaren 16an, 18:00etan
Bilboko Karmen Aretoan

2019ko
OTSAILA MARTXOA APIRILA MAIATZA EKAINA

euskaltzaleen topagunea

Bilbao

Bilbao

www.bilbaoeuskaraz.eus

Arangoitiko



euskal jaia

2019ko maiatzaren 4tik 12ra